

# I

## GURE AITA

1

Hau da nire sinismena  
hau da nire zoramena!  
Zeru ta lurren Egile Jaunak  
AITA dauala izena!  
Jesusek dino AITA zarala  
eta Aitarik Aitena.

2

Zugan dogu hasiera  
eta Zugan amaiera,  
Mundu honetan badoguz, Aita,  
makina bat gorabehera,  
lagun eiguzu bizi gaitezan  
beti zure esanera.

3

Jesusek esana baita  
Zu zarala gure Aita.  
Bizitzan dana geure onean  
dator Zeuk holantxe nahita;  
honetan beti ziur gagoz gu  
gaituzulako hain maita.

4

Aitaren Urtea aurten  
nok ondo ospatu leiken!  
Espiritua, lagun eiguzu  
ABBA-AITATXO esaten,  
eta Jesusen jarrera hartzen:  
“Aitaxo, hona ni hemen”.